

# “EUSKARAZ BLAI” IKASTETXE EGONALDIAK

## 2011-2012 IKASTURTEA

Irakasle lagunak:

Ikasturte honetarako prestatu dugun “EUSKARAZ BLAI - IKASTETXE EGONALDIAK” egitarauaren berri eman nahi dizuegu gutun honen bitartez. Hamaika urteko ibilbidea egin ondotik, aurreko ikasturtean Arantza eta Beintzako aterpetxeok egitasmo hau gure gain hartu genuen eta 2011ko udaberrian zehar garatu izan dugu.

Ikasturte berri honetan ere proiektuari segida emanen diogu, udan zehar garatu dugun “Euskaraz Blai – Euskarazko Udalekuak” egitasmo arrakastatsurekin bat eginez: uda honetan Nafarroako 800 lagunek parte hartu dute, A eta D ereduko udalekuetan.

Nafarroako mendialdeko aberastasun natural eta kulturalen, eguneroko bizimoduan oinarrituta eta aisiarako jarduerekin lotuta, hizkuntzaren beste bizipen bat ematen zaio ikasleari euskarazko egonaldiotan.

Bi egitarau prestatu ditugu, 3 eta 5 egunekoak, Arantza eta Beintzako aterpetxeetan 2011-2012 ikasturtean zehar garatuko direnak, urritik maiatza arte (urtarrila izan ezik).

### INFORMAZIO GEHIAGO: “EUSKARAZ BLAI” IKASTETXE EGONALDIAK

Arantzako ATERPEa 948 634 179 [aterpe@arantza.net](mailto:aterpe@arantza.net)  
Beintzako Aterpetxea-ORBELA 948 450 014 [orbela@alberguesnavarra.com](mailto:orbela@alberguesnavarra.com)  
[www.consorciobertiz.org](http://www.consorciobertiz.org) / [www.arantza.net](http://www.arantza.net) / [www.alberguesnavarra.com/beintza](http://www.alberguesnavarra.com/beintza)

Zuen interesekoa izango delakoan, agur bero bat

Arantzako Aterpe Aterpetxea

Beintzako Aterpetxea-ORBELA

# ESTANCIAS ESCOLARES “EUSKARAZ BLAI”

## CURSO 2011-2012

Estimados profesores:

Por la presente carta os informamos del programa “**ESTANCIAS ESCOLARES- EUSKARAZ BLAI** ” que hemos preparado para este curso. Tras once años de trayectoria, el pasado curso los albergues Aterpe de Arantza y Orbela de Beintza asumimos el proyecto y lo hemos desarrollado a lo largo de la primavera de 2011.

A lo largo del presente curso el proyecto también va a tener continuación, enlazando así con el exitoso programa “Campamentos en Euskara – Euskaraz Blai”, en el cual durante este verano 800 escolares de Navarra han participado en campamentos de modelo A y D.

En las estancias en euskara se transmite al alumno otra motivación y forma de vivir la lengua, basada en la vida diaria, enriquecida por el entorno natural y cultural de la montaña navarra, y enlazada con variadas actividades de tiempo libre.

Hemos preparado dos programas, de 3 y de 5 días, que se desarrollarán en los albergues de Arantza y Beintza a lo largo del curso 2011-2012, de octubre a mayo (excepto enero).

### **MÁS INFORMACIÓN: ESTANCIAS ESCOLARES “EUSKARAZ BLAI”**

Albergue ATERPE de Arantza      948 634 179      [aterpe@arantza.net](mailto:aterpe@arantza.net)  
Albergue de Beintza - ORBELA      948 450 014      [orbela@alberguesnavarra.com](mailto:orbela@alberguesnavarra.com)  
[www.consorciobertiz.org](http://www.consorciobertiz.org) / [www.arantza.net](http://www.arantza.net) / [www.alberguesnavarra.com/beintza](http://www.alberguesnavarra.com/beintza)

Esperando que os resulte de interés, un cordial saludo

Albergue Aterpe de Arantza

Albergue de Beintza-ORBELA

# IKASTETXE EGONALDIAK "EUSKARAZ BLAI" 2011-2012 IKASTURTEA



*"Nafarroako mendialdeko aberastasun natural eta kulturalen, eguneroko bizimoduan oinarrituta eta aisiarako jarduerekin lotuta, hizkuntzaren beste bizipen bat ematen zaio ikasleari euskarazko egonaldiotan"*

## HELBURUAK ETA EZAUGARRI NAGUSIAK

**HELBURUAK:** “EUSKARAZ BLAI” ikastetxe egonaldien helburu nagusia Nafarroako ikasleei **euskaraz solasteko** aukera ematea da, **euskaraz aritzeko** dituzten eragozpenak gainditu eta konfidantzaz eta segurtasunez euren hitz-jarioa garatu dezaten. Hala ere, egonaldi hauek badituzte **bestelako helburuak** ere:

- Ikasleari bestelako **hizkuntza baliabideak eskaintzea**.
- Ikasleen artean **elkarbizitza bultzatzea**.
- Euskaraz bizi diren Arantza eta Beintza-Labaiengo **herriak ezagutzea**.
- **Natura ezagutzea**, gozatzea eta zaintzea.

**HIZKUNTZA EREDUAK:** **A, B eta D hizkuntza** ereduetao ikastaldeeiz zuzendua, beti ere egonaldi ezberdinetan eta hizkuntza ereduaren arabera.

**IRAUPENA:** **3 egun (bi gau) edo 5 egunetako (lau gau)** egonaldiak izanen dira, ikastetxearen eskaeraren arabera, baina beti ere:

- **3 egun (bi gau):** astelehenetik asteazkenera / asteazkenetik ostiralera
- **5 egun (lau gau):** astelehenetik ostiralera.

Edozein kasutan, egonaldia lehenengo egunean goizeko 10:30etan hasi (harrera aterpetxean edo Zubietan) eta azkeneko egunean 15:00retan bukatuko da (ikusiz EGITARAUA).

### **DATAK:**

- **2011 urtean: URRIA, AZAROA eta ABENDUA**
- **2012 urtean: OTSAILA, MARTXOA, APIRILA eta MAIATZA**

**TALDE KOPURUA:** ikastetxe bereko **ikasgela oso batek osatuko** du taldea (**gutxienez 25 eta gehienez 50 ikasle**, hau da, bi ikasgela). Talde handiagoak, kontsultatu. Talde txikiak direnean, 25 lagunengutxienekoa ordaindu behar da edo egonaldia ezaugarri bereko beste talde batekin partekatzeo aukera izango du. Erabaki hau antolatzailea eta ikastetxearen artean adostuko da.

**BALIABIDEAK ETA ANTOLAKUNTZA:** egonaldiak egiteko Arantzako ATERPE eta Beintzako ORBELA aterpetxeek ondorengo baliabideak jarriko dituzte:

- **Aterpetxea** (1. eta 2. kategoriko aterpetxe turistikoa), garbiketa eta **mantenua**. Dieta orekatu bat prestatuko da. Dieta bereziak, aurretik abisatu behar dira.
- Aisialdi **begirale eta mendi gidari taldea**, eta 3 edo 5 egunetako egitaraua eta **beharrezko materiala**. Begirale / ikasle erratioa: 1 / 15-20, jardueren arabera.
- Ikasle eta irakasleentzako **Erantzukizun Zibileko Asegurua**.

## IRAKASLEEN BETEBEHARRAK ETA KONPROMEZUAK

- Ikastalde bakoitzarekin **irakasle euskaldun bat etorriko da** egonaldira. Hala ere, gutxienez **bi etortzea gomendatzen da**. Bi irakasleen egonaldia dohainik da.
- Irakasleak, ondoko **betebeharrak** izango ditu:
  - **Ikasleei eta haien gurasoei** egonaldiko egitaraua jakinarazi.
  - Egonaldiaren hasieran **taldea ikastetxetik aterpetxera lagundu** (autobusean) eta **bukaeran ikastetxera itzuli**.
  - Ikastaldearekin **egonaldian zehar egon**, ondoko ordutegia libre izango duelarik:
    - Goizean: 10,00etatik 13,00etara
    - Arratsaldean: 15,00etatik 18,00etara
    - Gauean: 21,00etatik 22,30ak arte (gaubela egunetan)
  - Aterpetxeko eta jardueretako **araudia ezagutu eta ikasleei betearazi**.
  - Ikastaldearekin **gauetz egon** eta ikasleen zaintzailea izango da egonaldi osoan zehar.
  - Ikasle batek asistentzia sanitarioa behar izanez gero, **Osasun Zentrora lagundu** eta haren gurasoei horren berri eman.
  - Egonaldiaren **bilera informatibora** joatea gomendatzen da.

### PREZIOAK ETA MATRIKULAZIO PROZESUA

**3 egun: 80 € / ikasleko (\*)**

**5 egun: 135 € / ikasleko (\*)**

(\*) **Prezioan sartzen da:** pentsio osoa, lehenengo eguneko bazkaritik azken eguneko bazkariraino, merienda barne; egitarauaren jarduerak eta materiala.

**Ez da sartzen:** autobusa joan-etorrian (ikus AUTOBUS ZERBITZUA).

**MATRIKULAZIOA:** Irailaren 5etik urriaren 7ra (biak barne)

**ORDAINKETA:** matrikulazioarekin batera, egonaldiaren %50a ordaindu behar da, erreserba modura; gainontzeko 50%a egonaldia bukatu ondoren. **ANULAZIOAK:** matrikulatu ondoren egiten diren baliogabetze edo bajak justifikatu beharko dira (mediku txostena,...); bestela erreserba galduko du.

**NON / NOLA:** txanda erreserbatzeko ikastetxea dagokion edo aukeratzen duen aterpetxearekin zuzenean harremanetan jarri beharko da:

Arantzako ATERPEa	948 634 179	aterpe@arantza.net
Beintzako ATERPETXEA	948 450 014	orbela@alberguesnavarra.com

**BILERA INFORMATIBOA IRAKASLEEKIN:** URRIAREN 5ean, 17:00etan

Euskara Irakaskuntzarako Baliabide Zentroan (EIBZ) – UHARTE

**1. EGUNA**

10,30etan: Zubieta. **HARRERA. Errota eta herriko bisita gidatua** (ordu ta erdi; hamaiketakoa).

OHARRA: errotako bisita ez bada egiten, harrera aterpetxean bertan izanen da.

11,00 / 12,00etan: **HARRERA aterpetxean**. Logelen antolatzea.

13,00 / 13,30etan: Bazkaria.

15,00 – 18,00: **Jokuak edo Tailerrak. Merienda. Hizkuntza jolasak.**

18,00etan: Saioaren bukaera. Denbora libre.

20,00etan: Afaria eta, ondotik, **gaubela** (22,30ak arte).

**2. EGUNA**

9,00etan: Gosaria.

10,00-13,00: **Jokuak edo Tailerrak. Hizkuntza jolasak.**

13,00 / 13,30etan: Bazkaria.

15,00 – 18,00: **“Natura ezagutzen”** saioa (Arantzan: **San Juan Xar Natur Eremuan ibilaldia**;

Beintzan: **Sarasolako gaztainadian ibilaldia eta Lezealde Txiki kobazuloa**). Merienda.

18,00etan: Saioaren bukaera. Denbora libre.

20,00etan: Afaria eta, ondotik, **gaubela** (22,30ak arte).

**3. EGUNA**

9,00etan: Gosaria.

10,00-13,00: **Jokuak edo Tailerrak. Hizkuntza jolasak.**

13,00 / 13,30etan: Bazkaria.

15,00 – 18,00: **Jokuak eta Talo tailerra (Taloak, merienda).**

18,00etan: Saioaren bukaera. Denbora libre.

20,00etan: Afaria eta, ondotik, denbora libre (irakasleen eskutik).

**4. EGUNA**

9,00etan: Gosaria.

10,00-18,00: **“Natura ezagutzen”** saioa, egun osorako (Arantzan: **Mendi itzulia eta Zuhaitz Parkea edo espeleologia Arruzpi kobazuloan**; Beintzan: **Leurtzako Urtegiak Natur Eremua edo Uraren Bidea ibilaldia**). Bazkaria (pik-nik) eta merienda.

18,00etan: Saioaren bukaera. Denbora libre.

20,00etan: Afaria eta, ondotik, **gaubela** (22,30ak arte).

**5. EGUNA**

9,00etan: Gosaria.

10,00-13,00: **Jokuak edo Tailerrak. Hizkuntza jolasak.**

13,00 / 13,30etan: Bazkaria.

15,00etan: Egitarauaren bukaera eta etxera itzulia.

**1. EGUNA**

10,30etan: Zubieta. **HARRERA. Errota eta herriko bisita gidatua** (ordu ta erdi; hamaiketakoa).

OHARRA: errotako bisita ez bada egiten, harrera aterpetxean bertan izanen da.

11,00 / 12,00etan: **HARRERA aterpetxean**. Logelen antolatzea.

13,00 / 13,30etan: Bazkaria.

15,00 – 18,00: **Jokuak edo Tailerrak. Merienda. Hizkuntza jolasak.**

18,00etan: Saioaren bukaera. Denbora libre.

20,00etan: Afaria eta, ondotik, **gaubela** (22,30ak arte).

**2. EGUNA**

9,00etan: Gosaria.

10,00-13,00: **Jokuak edo Tailerrak. Hizkuntza jolasak.**

13,00 / 13,30etan: Bazkaria.

15,00 – 18,00: **“Natura ezagutzen”** saioa (Arantzan: **San Juan Xar Natur Eremuan ibilaldia**;

Beintzan: **Sarasolako gaztainadian ibilaldia eta Lezealde Txiki kobazuloa**). Merienda.

18,00etan: Saioaren bukaera. Denbora libre.

20,00etan: Afaria eta, ondotik, **gaubela** (22,30ak arte).

**3. EGUNA**

9,00etan: Gosaria.

10,00-13,00: **Jokuak edo Tailerrak. Hizkuntza jolasak.**

13,00 / 13,30etan: Bazkaria.

15,00etan: Egitarauaren bukaera eta etxera itzulua.

## O HAR OROKORRAK

Eguraldia edo bestelako arrazoiengatik **antolatzaileak jardueren garapena aldatu** ahal izango du, aldez aurretik taldeko arduradunari / irakasleari jakinarazita. Halaxe, jardueraren bat bertan behera gelditu behar baldin bada, antolatzaileak ordezko beste bat prestatuko du.

Jokoak eta tailerrak, hizkuntza jolasak eta gaubelak: **Talde bakoitzaren ezaugarrien arabera**, euskara lantzeko jolas, tailer eta gaubela ezberdinak antolatuko dira.

## AUTOBUS ZERBITZUA

Egonaldiaren prezioa ttipitzeko asmoz, Bidasoaldeko autobus enpresa batek ikastetxetik joan-  
etorriko zerbitzuan honako eskeintza proposatzen du (BEZa barne. ERNE: kasu honetan  
Zubietako errota eta herriko bisita ez dira egingen):

• IRUÑETIK:	goizeko 10,00etan abiatuta	320 € + 320 €
• TAFALLA / LIZARRATIK:	goizeko 10,30etan abiatuta	320 € + 320 €
• ERRIBERATIK:	goizeko 11,00etan abiatuta	390 € + 390 €
BESTE LEKUAK:	kontsultatu	

### INFORMAZIO GEHIAGO: "EUSKARAZ BLAI" IKASTETXE EGONALDIAK

Arantzako ATERPEa 948 634 179 [aterpe@arantza.net](mailto:aterpe@arantza.net)  
Beintzako ATERPETXEA 948 450 014 [orbela@alberguesnavarra.com](mailto:orbela@alberguesnavarra.com)

[www.consociobertiz.org](http://www.consociobertiz.org) / [www.arantza.net](http://www.arantza.net) / [www.alberguesnavarra.com/beintza](http://www.alberguesnavarra.com/beintza)

ARANTZAKO ATERPEa

BEINTZAKO ATERPETXEA - ORBELA

"Euskaraz Blai - Ikastetxe Egonaldiak" proiektuaren bidez, Nafarroako mendialdeko aberastasun natural eta kulturalen, eguneroko bizimoduan oinarrituta eta aislarako jarduerekin lotuta, hizkuntzaren beste bizipen bat ematen zaio ikasleari euskarazko egonaldiotan.

Bi egitarau prestatu ditugu, 3 eta 5 egunekoak, Arantza eta Beintzako aterpetueetan 2011-2012 ikasturtean zehar garatuko direnak, urritik maiatz arte (urtarrila izan ezik).

Datak: 2011ean - urria, azaroa eta abendua  
2012an - otsaila, martxoa, apirila eta maiatza

Hizkuntza ereduak: A, B eta D

Adina: LH eta DBH

Egonaldia: 3 egun (2 gau) / 5 egun (4 gau)

Prezioa: 3 egun: 80 €, / 5 egun: 135 €

Harrera: Arantzan 60 ikasle / Beintzan 40 ikasle

Autobus zerbitzua: prezio bereziak (kontsultatu)

IZENA EMATEKO EPEA: Irailaren 5etik urriaren 7ra  
IRAKASLEERKIN BILERA:  
Urriaren 5ean, 17:00etan Uharteko EIBZn

INFORMAZIOA eta IZEN EMATEA

<b>ARANTZA ATERPE</b>	<b>BEINTZAKO ATERPETXEA</b>
Tel: 948 634 179	Tel: 948 450 014
aterpe@arantza.net	orbela@alberguesnavarra.com
www.arantza.net	www.alberguesnavarra.com/beintza

# IKASTETXE EGONALDIK "EUSKARAZ BLAI" 2011-2012 IKASTURTEA

ARANTZAKO  
ATERPEA

ORBELA  
Baitzenetxe - Albergues  
BEINTZAKO OSTATUA ATERPETXEA

